



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO IRAILAREN 26AN
EGUERDIKO 13:00EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palaciossek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

*** 2017/09/12KO BILKURA.**

Batzarkideek, 2017ko irailaren 12ko bilkurako akta gehiengoz onartu da. Alaitz Aizpuruaren abstentzioarekin, ez zelako bilkuran egon, eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

*** 2017/09/18KO BILKURA.**

Batzarkideek, 2017ko irailaren 12ko bilkurako akta gehiengoz onartu da. Alaitz Aizpuruaren abstentzioarekin, ez zelako bilkuran egon, eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

**2.- 2017AN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN KIROL JARDUERETAKO
ETA KIROL EGOKITUTAKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA
OINARRIAK ONARTZEA.**

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, egitasmoak burutuko dituzten erakundeentzat, publikoak nahiz pribatuak, eta pertsonentzat udalerrian egin dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2017 urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2017 urtean Emakumeen eta gizonen berdintasun kirol jarduerak eta Kirol Egokitutako egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.



Usurbilgo Udala

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2017-2019 (GAO, 2017/07/18)

Guzti hau kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2017an Emakumeen eta Gizonen berdintasun kirol jardueretako eta kirol egokitutako egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen diren diru izendapenak:

1	43	00	481	341	00	02	Emakumeen eta gizonen berdintasun jarduerak	9.000 €
1	43	00	481	341	00	07	Kirol egokitua	3.000 €

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogeit egun balioduneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, eguerdiko 13:15ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.